

EMEKI

martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

8 de marzo

Día Internacional de las Mujeres



Getxo
bizi ezazu

*Sexu eta ugalketa eskubideen alde.
Geure gorputza, geure erabakia.*

*Por los derechos sexuales y reproductivos.
Nuestro cuerpo, nuestra decisión.*



Emakumeak komunikabideetan agerian jartzeko erreminta sortu da

Berria Fundazioaren beka bati esker, Oihana Etxebarrieta eta Eider Olazar kazetariak aurten erreminta bat sortuko dute emakumeak komunikabideetan agerian jartzea errazteko. Emakume adituen datu-basea da, eta horren helburu nagusia da "emakumeak protagonista aktibo moduan agertzea, esparru publiko askotan esperientzia duten pertsona moduan, eta ez subjektu pasibo moduan", dio Etxebarrietak.

Idea Bilgune Feministak 2012an egindako topaketetan sortu zen. Kazetaritza ikuspuntu feministatik landuta, ondorio moduan atera zuten "emakumeek ez dutela uste haiek merezi dutenik komunikabideetan iturri espezializatu moduan agertzea". Horregatik azpimarratzen dute "aditua ez dela unibertsitate-ikasketa batzuk dituen emakumea bakarrik, baita gauza bat luzaroan egiten duen emakumea ere, emakume guztiek gauza asko baitituzte esateko". Beraz, horietako bat bazara, har ezazu parte datu-base honetan eta idatzi helbide honetara: emakumeendatubasea@gmail.com

VI. Berdintasunerako Planak balio aldaketaren aldeko apustua egiten du

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Emakumeen eta Gizonen VI. Berdintasunerako Plana onetsi du duela gutxi. Planaren erronka da bizitza ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren esparru guztietan balio aldaketaren alde lan egitea, datozen urteetan horrela lortuko baita berdintasunerantzko jendarte-eraldaketa.

Horretarako, "Planaren ardatzak neska-toak, mutikoak eta gazteak dira, epe luze-

rako jendarte-aldaketaren bermea baitira; hezkuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia azpimarratzen dira, baita komunikabideena eta sare sozialeena ere". Hala azaldu du Izaskun Landaida, Emakundeko zuzendariak. Landaidak Getxo bisitatu du VI. Plana aurkezteko Emakumeen Nazioarteko Eguneko jardueren barruan.

Planak bi atal ditu: berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neu-

rriak, eta esku-hartzearen ardatzak berdintasun arloan. Modu horretan, hamahiru neurri gehitzen dira Euskal Administrazio Publikoan berdintasun printzipioa txertatzen laguntzeko. Bigarren atalean, zortzi programa zehatz gehitu dira balio aldaketan, jabeakuntzan, jendarte-antolaketa erantzukidean eta emakumeen aurkako indarkeria errotik erazten jarduteko.



Nola erreakzionatu piropoak esaten dituen jazarlearen aurrean?

Kaleko jazarpena, piropoak esatea deitzen dena, gizonezkoen ekintza da, eta jendartean onartuta dago, tradizioz ohitura ez-kaltegarri moduan moztarotuta baita. Hala ere, emakumeek haien aurkako ahozko eta sexuzko indarkeria-ekintza moduan ikusten dute, eta kasu askotan isildu egiten dira zaurgarriago ez sentitzeko. "Gizonezkoek emakumezkoek baino indartsuago sentitzeko eta haiei eraso egiteko erabiltzen duten mekanismoetako bat dela uste dut", salatzen du Alondra Sevillak Panteras Rosas kolektibo

feministatik Piropo o acoso callejero izeneko dokumentalean. Hain zuzen ere, dokumental hori Nikaraguako nerabeek egin dute.

Bideo horrek eta interneten dauden bestelako baliabideek emakumeak animatzen dituzte mota horretako ahozko erasoaren aurrean erreakzionatzera. Horietako bat "El cazador cazado" da, Alicia Murilloren proiektua. Horrek eztabaida handia eragin du kolektibo zibermatxistan. Aktibista feministak berak mugikorrarekin grabatutako zenbait bideo

dira, eta horietan agertzen da zein elkarriketa dituen berak kaletik doala fisikoari buruz zerbait esaten diotenean. Era berean, eraso sexistaren eguneroko modu horri buruzko gogoetak tartekatzen ditu. Guztiz gomendagarria da. Amaitzeko, aipatzekoa da Piropopó, Estudios Cuacuac-ek egindako bideojokoa. Protagonista kaletik oinez doa, eta piropoak esaten dituztenak aurkitzen ditu. Jolasak erreakzionatzeko zenbait aukera ematen ditu, eta horietako bakoitzarekin puntuen markagailuak gora edo behera egiten du.

Sexu- eta ugaltze-eskubideen atzerapausoa

Emakumeek 2010eko epeen legeaz geroztik daukaten abortatzeko eskubidea bertan behera uzten duen lege-aurreproiektua eta lesbianen bikoteei eta bikoterik ez duten emakumei osasun publikoan lagun-

tza bidezko ugalketa teknikak baliatzen ez uztea sexu- eta ugaltze-osasunarekin zerikusia duten eskubideen alorrean estatuan ematen ari diren atzerapausoen adibideak dira.

Sexu- eta ugaltze-eskubideen (SUE) subjektu izateak esan nahi du sexualitatea diskriminazio, hertsadura eta indarkeriarik gabe erabili ahal izatea; seme-ala-bak izateko aukera baliatu ala ez libreki erabakitzea; eta erabaki hori hartzeko informazioa eta bitartekoak eskura izatea.

Eskubide horiek, ordea, nazioarteko legeriak babestuta dauden arren, ez dituzte beti errespetatzen. Gaur egun, 70 estatuk sexu bereko pertsonen arteko harremanak debekatzen dituzten legeak dauzkate; eta horietatik bederatzik heriotza-zigorrek ezartzen dituzte delitu horregatik. Zenbatespenen arabera, bi milioi neskato sexu-esklabu dira, salerosi egiten dituzte. Horrez gain, 14 herrialdetan emakumeek senarraren baimena behar dute metodo antikonzeptiboak eskatzeko, eta zortzi minutuan behin emakume bat hiltzen da seguru ez abortatzeagatik sortutako arazoan ondorioz; hori, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera.

Estatu espainiarrean ere urratzen dituzte herritarren sexu- eta ugaltze-eskubideak. Lesbianen bikoteei eta bikoterik ez duten emakumei osasun publikoan laguntza bidezko ugalketa teknikak baliatzen ez uztea eta emakumeek abortatzeko daukaten eskubidea bertan behera uzten duen lege-aurreproiektua atzerapauso horren bi adibide dira.

Horri gehitu behar zaio, gainera, arauz kontrako egoeran dauden atzerritarrak osasun publikotik kanpo utzi izana. Izan ere, 2012ko irailetik, paperik gabeko emakume atzerritarrek ez daukate osasun-estaldurarik. EAEn kasuan urtebeteko errolda eskatzen zaie.

Lege Organikoaren aurreproiektua
Ministroen Kontseiluak Jaioberrien eta Haurdunen Eskubideak

Babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua onartu du, eta, aurreproiektuak aurrera egiten badu, gaur egungo epeen legearen ordez, baldintzen lege bat jarriko dute indarrean. Hala, lehenbiziko 14 asteetan

Gaur egun, 70 estatuk sexu bereko pertsonen arteko harremanak debekatzen dituzten legeak dauzkate; eta horietatik bederatzik heriotza-zigorrek ezartzen dizkie delitu horiei.



emakumeek ez dute haurdunaldia eteteko eskubidea izango (aldi horretan gertatzen da, Osasun Ministerioaren arabera, haurdunaldiaren borondatezko eteteen (HBE) %92), eta, bi baldintza hauetatik kanpo, abortatzea delitu izango da berriz ere: batetik, bortxaketa; eta bestetik, emakumeen bizitza edo osasun fisiko edo psikikoa arriskuan egotea. Umekiak malformazio larriak izatea ez da abortatzeko arrazoitzat hartuko, eta nerabeek haien guraso-agintearen titularraren onespina beharko dute abortatzeko.

Erreforma horrek SUEei buruzko nazioarteko akordio eta hitzarmenak urratzen ditu, bereziki Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluko Errelatore Bereziaren Txostena. Txosten horren arabera, "HBE zigortzen eta mugatzen duten lege penalak emakumeek osasun-eskubideak erabiltzea eragozten duten oztopo onartezinak dira eta, beraz, bertan behera utzi beharra daude".

Gaitzespen ugari

Europako Parlamentuko talde nagusiek kritikatu egin dute berehala Abortuaren Legearen erreformak eragingo duen "atzerapauso historikoa". OMEren datuen arabera, lege murriztaileen ondorioz abortu arriskutsuak egiten dira, eta abortu horien ondorioz gertatzen da munduan haurdunen heriotzen %13. Munduko Medikuek erakundeko Yolanda Rodriguezen hitzetan, "abortu kopurua ez da gutxitzen, lortzen duten bakarra da bitarteko gutxien dauzkaten emakumeek haurdunaldia eteteko haien bizitza arriskuan jartzea".

Alde horretatik, Atseginez erakundeak, Sexu Hezkuntza eta Familia Plangintzako Elkarteak, eskatu

du "sexu-hezkuntza lehen eta bigarren hezkuntzan sartzeta eta metodo antikonzeptibo guztiak eskura izateko eskubide unibertsala bermatzea". Izan ere, bi printzipio horiek, abortuaren inguruko lege murriztaileek ez bezala, "haurdunaldiaren borondatezko eteteen kopurua gutxitzen dute".

Halaber, Abortatzeko Eskubidearen aldeko Euskal Herriko Plataforma Feministak, hainbat manifestazioetan, "lege horren aurrean intsumiso izatea" eskatu die euskal erakundeei, baita "emakumeek libre, seguru eta doan abortatzeko daukaten eskubidea bermatzea" ere.

Lege murriztaileen ondorioz abortu arriskutsuak egiten dira, eta abortu horien ondorioz gertatzen da munduan haurdunen heriotzen %13

Aurreproiektuak eragin duen haserrearen adierazpen nabarmena duela gutxi ikusi dugu: hainbat emakume beren gorputzak erregistratu dituzte hainbat herriko Erregistro Zibiletan, emakumei beren "gorputzen jabetza kendu" egiten zaiela salatzen. "Nire feminismoaren ikuspegitik, Erregistro Zibilerak bularrak, eskuak, ipurdia, burua,

obulutegiak, uteroa, bizkarra... erregistratzera joaten diren emakumeek aldatuko dute mundua", dio Bilboko Emakume Ez-perfektuak elkarteko May Serranok.

ALDERAKETA-TAULA:

Haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzko araudiak alderatzeko taula

	1985eko Legea	2010eko Lege Organikoa	Lege Organikoaren aurreproiektua
Askatasunez aukeratzeko epea	Ez du aintzatesten	14 aste bete baino lehen, informatzeko gutun-azal bat jaso eta 3 egunean hausnartu ondoren.	Ez du aintzatesten
Bortxaketa salatuz gero	12 aste	Askatasunez aukeratzeko epearen barruan.	12 aste
Emakumeen bizitza edo osasuna arriskuan egonez gero	Ez dago eperik, aditu batek aurrez txostena egin behar du	22. astera arte baimenduta dago eta aditu batek aurrez txostena egin behar du	Ez dago eperik, bi adituk aurrez txostena egin behar dute
Lehenbiziko 22 asteetan fetuak anomalia larriak izateko arriskua daukala antzemanaz gero	Bi adituk txostena egin behar dute	Bi adituk txostena egin behar dute	Ez du aintzatesten
Adina	18 urtetik gora	16 urtetik gora	18 urtetik gora 16 urtetik 18 urtera emakumearen eta guraso-agintearen titularraren onespina behar da.
Baldintzetatik kanpo abortatzen duten emakumeentzako zigorra	6 eta 12 hilabete arteko espetxe-zigorra edo 6 eta 24 hilabete arteko isuna	6 eta 24 hilabete arteko isuna	Haurdunen jokabidea ez da zigorgarria izango
Osasun arloko langileentzako zigorrak, abortua egiteagatik	Urtebete eta 3 urte arteko espetxe-zigorra eta urtebete eta 6 urte arteko gaitasungabetzea	Urtebete eta 3 urte arteko espetxe-zigorra eta urtebete eta 6 urte arteko gaitasungabetzea	Urtebete eta 3 urte arteko espetxe-zigorra eta urtebete eta 6 urte arteko gaitasungabetzea (kode penaleko 145 bis artikuluko aldaketa).

Abortatzeko eskubideen alde talde feministek egin duten borrokaren historiako data garrantzitsuenak:

1976

Talde feministek amnistia eskatu zuten abortatzeagatik eta abortuak egiteagatik espetxeratuta zegoen jendearentzat.

1977

Antisorgailuak legeztatzearen aldeko kanpainak: "Antisorgailuak, ez abortatzeko; abortu askea, ez hiltzeko".

1977-1985

Abortua hemen, ez Londresen ez Parisen. Mugimendu feministak emakumeei bidaiatzen lagun zieten, seguru aborta zezaten.

1979

Antisorgailuak despenalizatu zituzten.

1972-1982

"Nik ere abortatu dut", abortuak egitea leporatutako Basauriko hamaika emakumeen aldeko elkartasun-kanpainak lau urte baino gehiago iraun zuen. Azkenean absolbitu egin zituzten denak.

1985

Abortua partzialki despenalizatzeko Legea. Hiru baldintza (emakumearen osasuna, bortxaketa eta fetuaren malformazioa) eta epeak jarri zituzten (arrazoia emakumearen osasuna bazen, ez zegoen eperik).

1985-1990

Hainbat emakume eta osasun-langile atxilotu, epaitu eta zigortu zituzten (baita absolbitu ere), ustez Legeak babestu gabeko abortuak egiteagatik.

2010

Sexu- eta ugaltze-osasunari eta haurdunaldiaren borondatzeko eteteari buruzko Legea.
Lege hori aurrerapauso handia izan zen abortatzeko eskubidea eta SUEak aintzatesteko bidean.

2013

Jaioberrien eta Haurdunen Eskubideak Babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua aurkeztu zuten. Atzerapauso historikoa da SUEen aldeko borrokan; izan ere, 1985ekoa baino murriztaileagoa den baldintzen lege bat jarri nahi dute indarrean.

Getxoko Emakume Elkarteak

BILGUNE FEMINISTA

Elkarte Feminista
ehbfgetxo@euskalerrria.org

ENCLAVE DE CIUDADANAS POR GETXO

Berdintasunaren aldeko Plataforma Zibikoa
Harremanetarako: Rosa Mari Comonte
Tnoa. 94 602 47 87 . 68 posta kutxa
enclavedeciudadanasporgetxo@gmail.com
enclavedeciudadanasporgetxo.blogspot.com

ESKUZ-ESKU

Prestakuntza
eta Garapenerako Emakumeen Elkarte
Puerto Orduña kalea, 16 baxua . 48993 Getxo
Tnoa. 94 430 08 35
asociacion@eskuz.e.telefonica.net

GIZATIAR

Romo eta Areetako Emakumeen
Gizarte eta Kultur Elkarte
Gobelaurre parkea z/g
48930 GETXO
Tnoa. 94 655 84 35
giza_ar@hotmail.com

RODA

Kultur Elkarte
Areetako Etorb., 10 baxua esk. 48930 Getxo
Tnoa. 94 463 18 96
asociacion_rod@telefonica.net

EMAKUMEEN AHOTSA

Etorkin eta bertako emakumeen topaketak
bultzatzen dituen elkarte da
asociacionmujeresconvoz@gmail.com

Jabekuntza eskola

Eman izena bertso-eskola feministan

Galdetu diozu inoiz zure buruari emakumeek bertso-larritza estilo berezia garatu dezaketen? Badakizu nola landu daitekeen bat-batekotasuna ikuspegi feministatik? Uxue Alberdik eta Ainhoa Agirreazaldegik galdera horien erantzunak dituzte, eta Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak antolatutako hurrengo tailerrean emango dituzte, hain zuzen ere, Bertso-eskola feminista! Izenekoan.

Bertsolaritza gizonetzkoen esparrua izan da tradizioz. Gertaera horrek hamarkada askotan eragin du bertsoak asmatzeko ematen ziren rolen eta gaien hautaketan. "45 urteko gizonetzkoa eraikitzen zen: urte askotan familia-enpresan lan egin zuen eta krisiarekin ez atzera ez aurrera gelditzen zen. Emakumea bere emaztea izaten zen, besterik gabe", dio Agirreazaldegik. Era berean, emakumezko bertsolariei gai eta egoera oso dramatikoak emateko joera ere ikusi da. "Ablazioari eta bortxaketei buruz abesten genuen, gure kideek izaten

zizuten gaiez oso bestelakoak izaten ziren", azpimarratzen du Agirreazaldegik.

Bertso-eskola feministan generoaren ikuspuntutik landuko dira gaiak zein umorea, eta horrela kultura-hizkuntza berria eraikiko dugu. "Helburua ez da abesten amaitzea, kultura-analisia egin eta bertsoaren bidez emakumeen errealitatea nola alda dezakegun erakustea baino. Estereotipoak saihestu behar dira, umore adimentsuagoa egiteko", dio amaitzeko Agirreazaldegik.

Ikastaroak 16 orduko iraupena du, hiru ostiraletan, martxoaren 21ean eta 28an, eta apirilaren 11n, 16:30etik 20:30era, eta apirilaren 5ean (larunbata), 10:00etatik 14:00etara. Ikastaroak euskaraz izango dira, Getxoko Jabekuntza Eskolan, Martikoena 16an, 1. solairuan. Prezioa 5 euro da. Interesa izanez gero, jarri harremanetan Berdintasun Zerbitzuarekin: berdintasuna@getxo.net helbidean edo 944660136 telefonoan.

